

MITOA ETA ERREALA

Barandiaran Joxemielen Diccionario de Mitología Vasca, Txertoa: San Sebastián, 1984.

Le mythe sur l'inceste, à première vue mystérieux et incompréhensible, perd beaucoup de ce qu'il a de bizarre lorsque'on s'est rendu compte qu'il reflète certaines tendances dont on peut voir la manifestation dans la vie réelle. Il est certain que l'inceste exerce une tentation sur l'indigène, mais un puissant tabou l'empêche d'y céder trop facilement. (MALINOWSKI, B., *La Vie Sexuelle Des Sauvages*, orrialdea: 401, Paris: Petite Bibliothèque Payot, 1970.)

Aipamen labur honetan ez dut erabiliko liburu berriaren ezaugarri bat besterik. Barandiaran Joxemielen antropologo (= etnologo = folklorelari) haundi haundiaz orain artekoan antropologo gutxi aritu izan gara, eta hori gaur egungo euskal antropologiaren nagitasunaren arrazoi oinarritzkoetarikotzat ematen dut, zeren eginala berpentsatu egin behar da edozein pertsona ekintzetan, eta beste horrenbeste ikerkuntzan orohar, eta antropologian zuzenki esateko. Barandiaran, bere lan asko eta askogatik, eta duela hamar-kada askotatik, antropologia (euskalduna nahiz atzerritarra) beraren barne-zaugarri bilakatua dago, eta halere euskal antropologigintza genienetan honen jabetasun ekintzalerik oraindik ere ez da ematen, ohorezko mailatan beti mugitzen direlarik horrelakoak.

Aipamen labur hori liburuaren honako ezaugarri honetan kokatuko da: zer da mitoa Barandiaran Joxemielenzat?

Galdera honi erantzun baino lehen, Barandiaranen antropologiazko pentsamenduaren muina zein den bergogoratuko dut. Hortaz hauxe esaten nuen *Anuario De Eusko Folklore*, 30 (1981) delako aldizkarian idatzitako artikuluan, "Acercamiento al Pensamiento Paletnológico De Joxemielen Barandiaran", orrialdeak 71-80:

Conclusión

Creo que a lo largo de este breve estudio ha quedado resaltado, aparte de los puntos que señalé cuando los objetivos de este estudio, la importancia tan grande que reviste el pensamiento paletnológico de Barandiarán dentro del conjunto de toda su obra. Hasta tal punto eso es así, a mi juicio, que su obra bien pudiera denominarse, entre otras maneras, como obra paletnológica vasca, que siendo la primera en tiempo por su sistematización sería igualmente la primera dentro de toda la producción de la paletnología vasca por su profundidad e importancia, que en parte he analizado ahora, como por su volumen. Y dentro de la producción de todos los tiempos, aquí y fue-

ra, vendría a ocupar un puesto igualmente de relevancia, trabajo que, según mis noticias, queda aún por realizarse, y cuya necesidad, no obstante, nadie puede ignorarla hoy por más tiempo. (ok. 78-79.)

Nire artikulua hau argitaratu aurretik, Barandiani eman nion irakur eta kritika zezan. Zazpi oharretan bere kritika egin zidan. Zazpigarrengoan zera idazten zuen:

(7) Barandiarán me añade: “Conviene advertir que uno de los criterios seguidos por Barandiarán ha sido éste: ‘en los hechos humanos no es adecuadamente inteligible lo que no es vivido’. De aquí resulta la diferencia científica ‘de los estudios de la Etnología’ y de la Paletnología”.

Orduan, Barandiaranek egin zizkidan kritikei buruz nire eritzirik ez ematea erabaki nuen. Orain, zazpigarrena den horretaz nire eritzia emango dut. Etnologia zer den esaten digunean Barandiaranek, ez digu esaten zer den Paletnologia, baizik zer ez den. Horrekin adots nator berarekin. Baina Etnologia eta Paletnologiaren arteko “diferencia científica” zer den esateko moduan Paletnologia zientzia ez dela esaten digu. Horrekin ez nago adots.

Barandiaranek egin zidan bigarren kritikazko oharrean haxe irakur daiteke, baina lehenik kritikazko ohar hori zuzentzen dion nire artikulua zatia hitzaldatuko dut:

Aquí entramos de lleno en las orientaciones de la escuela histórico-culturalista de Viena, de la que tan fuertes y dignos representantes son algunos de nuestros grandes etnólogos, a saber, Aranzadi, Barandiarán y Caro (1). Esta escuela instaura el punto de vista paletnológico en etnología como uno de sus aspectos más indispensables. Y Barandiarán desde sus inicios hasta hoy no ha dejado de seguir escrupulosa y sistemáticamente el referido punto de vista (2).

(1) Barandiarán me añade lo siguiente: “Esto no impidió que Barandiarán dedicara sus estudios al conocimiento de las funciones, de contexto y de los fines”.

(2) Barandiarán me añade lo siguiente: “Atendiendo a una lógica que, partiendo de la verosimilitud, llega a unas interpretaciones de valor probable”.

Gorago zera esan dut: “Baina paletnologia zer ez den esateko moduan Paletnologia zientzia ez dela esaten digu” Barandiaranek. Ondo ulertu ote dut Barandiaranen esaldia? Hots, esaldi hau, lehenago azaldu dudalarik: “De aquí resulta la diferencia científica ‘de los estudios de la Etnología’ y de la Paletnología”. Azpimarkatu nahi dut: “De aquí resulta la diferencia científica”.

Zeren, niri egin zidan bigarren kritikazko oharrean, orain oraintxe hitzaldatu dudalarik, paletnologiaren “lógica”, bada, “llega a unas interpretaciones de valor probable” baieztatzen du Barandiaranek. Eta lehen kritikaz-

ko oharrean, pertsonalki hamaika aldiz errepikatzen didana, berarentzat etnologiaren logika zertan datzan erakusten digu, Bienako eskola historiko-kulturalaren iritzi nagusiei erantzen dizkiolarik: “conocimiento de las funciones, de contexto y de los fines”. Non ipintzen ditu, beraz, etnologiaren eta paletnologiaren arteko mugak Barandiaranek esaldi hauen arabera? Ikertutakoa zuzen zuzenean bizitzean, eta hau ere lehenxeago esan digu ataundarrak, horrentxe “fines” edo helburuak, asmoa ezagutzea da etnologiaren zeregina. Paletnologiarena, bestalde, “verosimilitud”-ea edo egituraren ikerkuntzan ari denez, bere zeregina “interpretaciones de valor probable”-etara iristea izango da. Hau dena, Barandiaran Joxemielek erakutsitakoaren arabera.

Eskuartearen darabiltan galdera, Barandiaranen esaldi hau “la diferencia científica ‘de los estudios de la Etnología’ y de la Paletnología” alegia, erantzunda gelditu da ataundarraren arabera modu honetara:

Etnologia: zuzen zuzenean bizitakoaren asmoaren ikerkuntza da.

Paletnologia: “verosimilitud”-ea edo egituraren ikerkuntza da.

Orduan, biak ikerkuntza izanik, bien artean ikerkuntzazko alde bat dagoela esan nahi al digu Barandiaranek “la diferencia científica” delakoarekin? Horrekin ados nago. Eta hori bakarrik esan nahi badu, idazlantxo honen haseran esan dudana erabat kentzen dut, zera alegia: “Baina Etnologia eta Paletnologiaren arteko ‘diferencia científica’ zer den esateko moduan Paletnologia zientzia ez dela esaten digu. Horrekin ez nago ados”. Baina delako aldearen segidan Etnologia zientzia dela eta Paletnologia ez esan nahi badu Barandiaranek, horrekin ez nago ados. Biak dira zientzia.

Orain, Etnologia Paletnologia baino zientziagoa dela esaten badit bakarren batek, horrekin ere ez nago ados.

Zientzia zer da? Ezagupen bat, metodo objetiboetatik lortzen delarik. Metodo objetiboa arau batzuetan beti oinarritzen da. Zientzia mota bakoi-tzak agertu behar du bere metodoaren arauak zeintzu diren. Baldintza hau beteaz jokatzeko duen ezagupena zientziatzat da.

Etnologiaren metodoaren arauetariko bat Barandiaranek etengabe erakutsi eta betetzen aritu dena da, gorago agertu bezala: zuzen zuzenean bizitakoaren asmoaren ikerkuntza da etnologia.

Paletnologiaren metodoaren arauetariko bat Barandiaranek berak ere etengabe erakutsi eta betetzen aritu dena da, gorago agertu bezala: “verosimilitud”-ea edo egituraren ikerkuntza da.

Beraz, zientzia metodo objetibotasunetik ematen da. Horri esker, pertsonaren zientziatzat ezagupena hain aberatsa bilakatzen da. Esatebaterako, etnologiaren zientziatzat ezagupenak pertsonarteari zuzen zuzenean bizitukoaren asmoen azalpen objetiboa ekarriko dio; paletnologiak, bestalde, zuzen zuzenean ezin diren eta “verosimilitud” edo egituratik bakar bakarrik ezagut daitezkeen azalpen objetiboa ekarriko dio. Bietaz baliatuz behartua dago pertsonartea, baldin nahi badu hobeto baliatuz egoen zientziatzat ezagupen arloan, zeinetan, hein batetan, bere bizimodua uzartu lezake.

Puntu hau hemen oraingoz amaitzeko, Barandiaranek aspaldi aspaldi idatzitako bi aipamen hitzaldutako ditut hondora, eta horiekin nahi dut agertu nola Barandiaranentzat Paletnologia izan den zientziatzko ezagupen mota bat, oso garrantzitsua orohar eta Euskal Herriaren kondairaren ezagupenerako zuzenki:

Lehengoa, 1931-ean bere aldizkarian, *Anuario De Eusko Folklore*, 11, argitaratutako artikulu-liburu hartatik hartutakoa, *Breve Historia Del Hombre Primitivo* (Nik eskuartean 1982-an bere O.C.-erako egindako 2. argitalpena daukat):

Los datos que nos suministran las investigaciones arqueológicas acerca de la vida de los pueblos primitivos son relativamente escasos, como lo habéis podido ver por las páginas anteriores. Los restos de industrias y artes prehistóricas (pinturas, grabados, esculturas, utensilios, armas, construcciones? etc.) que hasta ahora conocemos, son poco numerosos y muchas veces incompletos o fragmentarios. Y en lo que atañe a la parte espiritual de las civilizaciones prehistóricas (religión, ciencia, mentalidad, organización, concepto de la dignidad personal, etc.), pocas cosas podríamos asegurar en concreto atendiendo sólo a tales documentos.

Si queréis, pues, completar vuestros conocimientos sobre el estado cultural de los hombres primitivos, deberéis acudir a la Etnología y estudiar preferentemente aquellos pueblos que han perpetuado hasta nuestros días un tenor de vida y civilización francamente prehistóricas.

La *Etnología* da a conocer el desarrollo del espíritu humano, sobre todo en sus fases primitivas, describiendo los diferentes grupos étnicos e investigando en ellos las culturas (Etnografía) y las leyes generales de la vida colectiva. Esto os hará comprender la gran importancia que ha alcanzado la Etnología entre las disciplinas históricas.

El aspecto histórico es, en efecto, el que más ha predominado en el campo de la Etnología desde que sus cultivadores de los siglos XVIII y XIX quisieron darle aire y contenido científicos. Con todo, la nueva ciencia apenas pudo progresar hasta que, a mediados del siglo XIX, empezaron los investigadores a aplicar decididamente a su estudio el método comparativo, empleado ya un siglo antes por el sabio jesuita P. Lafittau (1). A éste, pues, cabe la lógica de haber sido el fundador de la Etnología moderna como disciplina histórica. A su orientación, basada en el hecho de que muchos pueblos actuales se hallan estancados en un tipo de cultura logrado hace muchos siglos y aun milenios, representando estadios de civilización semejantes a los que poseyeron en otro tiempo los mismos europeos, se debe el gran desarrollo que esta ciencia ha adquirido hoy en muchos

(1) *Moeurs des Sauvages américains, comparées aux premiers temps (Paris, 1724)*.

países, especialmente en Alemania, Inglaterra, Francia y Estados Unidos (1) (ok.: 385-386).

Bigarrenkoa, 1934-ean argitaratutako liburua, *Euskaleñi'ko Leen-gizona (Eusko-lurétan Lenengo Izan Ziran Gizonen Edesti Laburá)*, zein Euskal Herriko azken pertsonarekin paleontologikoki lotzen du Barandiaran Joxemielek, lehen aldiz gure zientzia munduan egiten delarik hori (Nik eskuartean 1976-an bere O.C.-erako egindako 2. argitalpena daukat):

Euskaldunak beren jatorí eta bizikera oso bereziak dituzte.

Óregatik nunbait Euskalería, beste eñ guztien artean, garbi nabarmendua beti azaltzen zaigu.

Berezitasun orén sustrai eta kimuak antzin-antziñatik datozki-gu, úrúndik dakarkigute beren asiera.

Kimu eta sustrai oiek, denak alkaturik, egin eta eraldu dute euskal-edesti guztia.

Orí apur oetan edesti orén lenengo aroak azaldu nai nituzke; Jesukristoren sinismena gure alderdian sortu baño lenagokoak, alegia.

Bañan antiñako idaztirik izan ezik, *Arkeoloji eta Etnografía'ri* (2) eskatu bear izan dizkiegu lantxo onetan darabiltzkgun onñiririk bikañenak. Orá or gure lantegia.

Oraindaño, naiz euskal-bizikera, naiz abériaren oroia zopizartzen eta azterkatzen jardun degu.

Eta egin ditugun agerpenak, gaurko eguneko edestiaren egikeraz moldatzen ere zerbait saiatu gera. Ortatik euskal-edestia malaz-maia eraldua agertu zaigu. Eta mala oetako batzuek Pirene-mendietan beren sortze eta aurerapenak, Jesukristo baño lenagoko aroetan, izan zituzten.

Gure edesti-auréak egiaz lanbide sumakaitzak ba-ditu. Ori ez da aritzekoa: *jakintza au oraindik oraingoa bait-da* (2).

Ala ere asmakizun batzuei beren erabakia eman diegu: eta ustez betiko (2).

Beste jakintzaetan gertatu oi dan bezela, emen ere gauza guztiak ez dira lau eta agiriak.

Gure iritzi batzuek bada-ezpadakoak dira (2). Oraingoz geren baiezkhoa opa izan diegu, oien bidez azken-erabakiak iritxiko ditugun usteaz.

Zenbait tokitan irakurleari garbi adierazi diogu zertzuk diran sendo eta trinko dauden gauzak eta zertzuk koloka. Eta darabiltzkgun itzak berak darakuste askotan norañokoa dan gure ziñespena. (ok.: 221-222.)

(1) Vid. supra, págs. 4, 5, 6 y 7.

(2) Neuk, artíkulu honen egileak, azpimarkatua.

Barandiaranen bi aipamen hauekin argi eta garbi gelditzen dira:

1. Beren ikerkuntzen haseran nola etnologia indartsuenean prehistoria eta etnologia lotzen zituzten berauen egileek konparaketako metodoaz baliatuz zeinetan arau haundi batek zera esaten zuen: "...basada en el hecho de que muchos pueblos actuales se hallan estancados en un tipo de cultura logrado hace muchos siglos y aun milenios... se debe el gran desarrollo que esta ciencia ha adquirido hoy en muchos países...". Hortxe dago paletnologiaren oinarriketa.

2. Hain zuzen, Barandiaranek, bere ikerkuntzen haseratik gaurarte, Euskal Herriaren gaurko bizimodu nagusia (bere garaian nagusia) den, hots, nekazaritza eta beraren lehen lehenengo bizimodu nagusienekin izan ziren, hots, bilketa eta ehizia Paleolitos aaldian eta horiek eta gainera nekazaritzaren hastapenak neolitos aaldian, zera diot bada, gaurko eta lehen lehenengo bizimoduen arteko denborazko, historiako lotura ikertzen igarodun. Eta aipamenak hartu dizkiodan bi liburuak dira bere lehen lehenengo idazlan nagusienak bere bibliografia osoan. Eta bi liburu horien bidez, bereziki, Euskal Herrian lehen lehenengo historia idatzigabearen denboraren eta historia idatziaren denboraren arteko zubia sistematikoen antzeman zuen Barandiaranek, bere zientziako lorpen guztietatik haundiena izan delarik, eta euskal pertsona zientzietan sekula eman den haundiena baita ere.

Hain luze aritu ba naiz puntu honetan zeragatik izan da: Barandiaranen mitologiako ikerkuntza ulertzeko bere paletnologiako pentsamendua ulertzetik hasi behar delako. Bestela ez dago ongi ulertzerik hori. Eta hori egin dudalarik, eta egin gainera oraindik euskal antropologia historikoan hedatugabe dagoen argitasun batekin, idazlanen honen zergatikakora pasatuko naiz, hementxe.

Aintzinean egindako galdera bergogoratuko dut: zer da mitoa Barandiaran Joxemieltzat?

Galdera honen erantzuna zehatz mehatz emateko, Barandiaranen bibliografia osoa, ia oso osoa, aurrez aztertu behar da. Mitoa baita, beste batzuen artean, Barandiaranen euskal paletnologiaren elementu aztergarri eta frogagarri haundienetakoa.

Asko idatzi bait du hortaz, esan dudana bezala. Horien artean, mitologiako hiztegiarekin aurkitzen gara. 1984-ean argitaratu duen *Diccionario De Mitología Vasca* da hirugarren aldiz mitologiako hiztegiak argitaratzen duen zerbait, egileak berak "Nota preliminar"-ean, orrialdea: 7, esaten digularik. Mitologiako hiztegia jotzen dut Barandiaranen bibliografia osoan bere idazlan nagusienetarikotzat, beste bi gorago esan ditudalarik. Etnografiako monografia saila da beste idazlan nagusienetarikoa. Nik uste lau idazlan nagusi horiek direla bere idazlan nagusienak gaurarte.

1984-eko mitologiako hiztegiak gauza batek asko, eta asko ere asko, erakarri nau. Zerk?

Los mitos son las expresiones o interpretaciones "infieles" de los (sic) real; pero, como tales expresiones, son hechos, son unas aserciones. Aserciones que han sido creídas o relatadas como verda-

deras o como entretenimiento de los narradores y de sus oyentes. (orrialdea: 7.)

Esaldi horretatik “infielos” kontzeptua da, hain zuzen, horrenbeste erakarri nauena.

Mitologiako hiztegiaren aurreko bi argitalpenetan ez digu horrelako kontzepturik erabiltzen Barandiaranek. Zergatik aldaketa haundi haundi hori? Haietan, eta bietan, esaldi berbera dago. 1969-an Stuttgart-en argitaratu zen *Worterbuch Der Mythologie* izugarri hartan Barandiaranek eman zuen bere lehenengo mitologiako hiztegia, eta beraren “Einleitung”-en hau xe dio mitoen izakerari buruz:

Die Baskischen Mythen handeln von Geistern und Gestalten, die denen der paläolithischen Jäger zum Verwechseln ähnlich sind, so daß die Frage sich aufdrängt, ob es sich hier nicht tatsächlich um eine Übernahme handelt (Abb. 9, 10 und 11). (BARANDIARAN, J. M., *O.C.*, VI: 273.)

Aipamen horretatik “änlich”, hots, analogoa da azpimarkagarria Barandiaranenentzat mitoa zer den galderari erantzuterakoan.

1972-an, bigarren aldiz argitaratzen du Barandiaranek mitologiako hiztegia, aurrenekoaren aldean gehitua eta aberastua, eta gaurrate atera dituen hiruretatik osoena dena. Bere *Obras Completas-etako* lehen bolumenean dator. “Notas preliminares”-etan hau xe dio, une batetan, mitoen izakerari buruz:

Los mitos vascos proyectan sombras y figuras gemelas de las del cazador paleolítico. Decimos esto en un intento de explicación que nos parece más razonable que ciertas aproximaciones de nuestro Paleolítico a culturas nórdicas o australianas. (orrialdea: 13.)

Hemen, berriz, “gemelas” kontzeptua azpimarratzen dut. Gainera, bigarren frasean esaten digunagatik, Barandiaranek nahiago du bertakoa bertatik argitzen, esplikatzen hastea hortarako denborazko salto haundia eman beharko bada ere, bertakoa kanpotik argitzen hastea baino denborazko saltoari aldi berean lekuzkoa erantsi behar zaiolarik. Zeinen garrantzitsua den puntu hau Barandiaranen terioazko bilakapen historikoa ondo ezagutzeko! Eta horretaz bere kritikalaria, gaurrate, ez dira ohartu! Nire aurreko zenbait idatzietan, hori antzematen hasita nengoen, lekuko, besteak beste, gorago aipatuta dudan Barandiaranen etnologiako pentsamenduari buruzko tesia.

Hiru argitalpenetako mitoarene izakerari buruz Barandiaranek zer dioen ikusi ondoren, amaitzeko zera besterik ez dut agertuko iadanik oso luze dihoan idazlan honetan, eta oso luzeagoa egunen batetan izan behar duen honetan baldin ondo ulertu nahi badugu Barandiaranen ikerlanen oinarritzko puntu hauek.

“Expresiones o interpretaciones ‘infielos’ de los (sic) real”. Erreal hitza lehen aldiz sartzen digu Barandiaranek orainarteko mitologiako hiru hizte-

gietan. Haserako “änlich” kontzeptua eta urrengo “gemelas” kontzeptua aberastu ditu edukiz, esanahiaz. Errealiteren bar onartzen die mitoei Barandiaranek. Nik uste iadanik onartu izan diela, baina modu desberdinetara. Mitoei buruzko hiru kontzeptuek errealitateaz ari dira, hots, mitoak dituen Herriaren errealitate antropologikoaz, soziologikoaz. Eta errealitate hori honako bi modutara agertzen digula Barandiaranek uste dut nik:

1. modua: historiaren iraganezko errealitatea agertzen digu Barandiaranek “änlich” eta “gemelas” kontzeptuetan.

2. modua: historiaren garaian garaiko edo gaurko errealitatea agertzen digu Barandiaranek “expresiones o interpretaciones ‘infieles’ de los (sic) real” kontzeptuan.

Kontzeptu berri honen bidez Barandiaranek bere paleontologiako pentsamendua borobildu egin duela azpimarratu behar dut. Zeren, ez da nahikoa paleo-tasunean erreparatzea mitoen nahiz beste edozein antropologiako aztergaia lantzerakoan, aldi berean baita ere bere etnologia-tasuna landu behar. Gogora Barandiaranek berak, gorago, etnologia zer den esan diguna.

Barandiaranen Historiaren garaian garaiko edo gaurko errealitatearen agerpenaren aldeko froga bat, neronek bildua Ataungo Aiarre baserriko Agirre Josemariren ahotik entzun da, emanaz bukatzen dut erabat idazlan hau, oraingoz behintzat, aurretiaz Barandiarani zorion haundiak emanaz arrazoi askoren artean mitologiako hiztegiaren hirugarren argitalpenean mitoen izakerari buruz emandako ikuspuntu aztertzaile nagusiagatik. Delako froga elkarrizketa bat da, eta Agirre Josemari A, jm -rekin eta Apalategi Begiristain, Joxemartin AB, jm-rekin adieratziko ditut. *Aingeru Irigarairi In Memoriam* eskeinitako eta laster ateratzeko den libururako bidalitako idazlanetik jaso dut hau, eta nire tesilanean Ataungo mitoen klasifikatuen zerrendan M (= Mito)^{12a} ordenan datorrena honako bi izenburuekin: “Gu Bezelako Libre Zeilena” eta “Gizona Legoia, Usoa Ta Txingurrie”.

AB, jm.—Ta zein zenduen zuek, ke, bigarrego hau esan dezun honen izenik bai al dakizu? Lenengoarena esan dezun “Joan Soldadu”, eta bigarren histori...

A, jm.—Bigarrena, e, zea, gu bezelako libre zeilen, ze, emen zan hoi.

AB, jm.—Hori da.

A, jm.—Hoi mendia juun da mendia zihon da. Hoi, hiruek kan, e, burrukan emem zeiltzen zen, e, ganaue batek osoa nahitta bestek osoa nahitta emen zeiltzen. Da harek puska ta eman, da bea (hitz moteltasan pixka bat) bee bizin bila bee traste horiikin.

(APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxemartin antropologo eta irakasle.)

Donostian
1985ko Martxoaren 1ean